


# Egile eskubideak alkoholetan



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**P**aris, 1847ko martxoan. Gau batez, Café des Ambassadeurs local ezagunean musika zuzenean jotzen ari ziren, beste hainbatetan bezala. Entzuleen artean Ernest Bourget, Paul Henrion eta Victor Parizot zeuden, hirurak musikariak, beren sormen lanaz bizitzeko borrokan ari zirenak. Bourgetek, esaterako, 33 urte zituen ordurako, eta oraindik ez zuen lortu bere karrerak gora egiteko; gerora, besteak beste Jacques Offenbachentzat libretoak idatziko zituen.

Hirukotea konturatu zen Gabriel etorbideko kafetegi ezagunean jotzen ari ziren piezetako batzuk haiek sortuak zirela. Haiek konposatutako musikari esker, zuzenean jotzen ari ziren interpretatzailerik beren lanagatik ordainduko zieten. Lokaleko arduradunak ere dirua jasotzen ari ziren, musika emanaldien bidez kontsumitzen zuen publikoa erakartzen zutelako. Konpositoreek, aldiz, ez zuten libera bakarria ere jasoko.

Horregatik gau hartan, beren lanagatik ordainik jaso ezean, kontsumitutako edariak ez ordaintzea erabaki zuten, bigabekeria nolabait arintzeko. Café des Amassadeurseko jabeak ordaindu gabe alde egin zuten konpositoreen aurkako salaketa jartzea erabaki zuen, eta auzia epaitegietara iritsi zen.

Epaiketa hiru musikagileek irabazi zuten. Eta edari batzuk ez ordaintzea baino askoz gehiago lortu zuten. Eztabaida zabaldu eta musika sortzaileak antolatzen



*Ambassadeurs*: Aristide Bruant, Henri Taoulouse-Lautrec (1882) eta *Kafe kontzertua Les Ambassadeurs-en*, Edgar Degas (1877). Bi artistek egile eskubideen jatorrian dagoen kafetegi ezaguna margotu zuten.

hasi ziren. Handik lau urtera, 1851n, Société des Auteurs, Compositeurs et Éditeurs de Musique (SACEM) sortu zen, musikarien egile eskubideen kudeaketa kolektiborako lehen elkarte. Mende luzez musikagileek mezenasgoari edo enkargu jakinei esker soilik lortzen zuten beren talentua bizibide egitea, baina 1847ko gau

batez ordaindu gabe utzi zituzten edari horien ondorioz, sormen lanak merezitako aitortza eta ordain ekonomikoa izango zuen handik aurrera... sormena aitortzearen eta partekatzea debekatzearen arteko muga, eskubideen defendatzaile eta finantza espekulatuzaile izatearen artekoa, lausotzen hasi zen arte. ●

## Haur meatzariaren zapata

Dürrenberg-eko (Austria) Burdin Aroko gatz meatze batean indusketa lanak egiten ari zirela, larruzko zapata bat aurkitu dute. 2.000 urte inguru ditu, eta egungo 30 neurriko oinetako baten tamaina du; haur baten zapata da, beraz. Material organikoz egina izan arren, meatzeko gatzetan bikain kon-

tserbatu da larruzko pieza eta, horri esker, besteak beste, garai hartan zapatak nola lotzen zituzten jakin ahal izan dute ikerlariek, nahiz eta lokarriak galdu, zuloak garbi ikusten direlako. Eta, gainera, garai hartan ere haurrek meatzetan lan egiten zutela baieztatzen dute. ●

